

MUTRIKU / Andersen en ipuinak ezagutuko dituzte gazteek Liburu Astean

GARBIÑE GARAGARZA

Hans Christian Andersen en lanera hurbildu eta hura aztertzeko tarteak edukiko dituzte herriko gazteek. Idazle daniarraren ipuinei buruzko erakusketa zabalduko da astelehenean, eta horrela hasiko dira egunera arte antolaturiko ekimenak.

Andersen en hamar ipuin azaleratuko ditu erakusketak. Horretarako, ipuin horiek irudikatzen dituzten hamar ilustrazio erabiliko dituzte. Ilustrazioak bost paneletan (100 cm X 180 cm) bilduta daude.

Udal Liburutegia izan da aurtengo Liburu Asteko ekimenak antolatu dituenak. Erakusketaren helburu nagusia Andersen en lan zabala haurrei ezagutaraztea da, azaldu dute antolatzaileek.

Erakusketa apirilaren 27ra arte egongo da zabalik Zabil Kultur Etxean, eta hara joan nahi dutenek 18:00etatik 20:00ak bitartean topatuko dute zabalik.

Tailerrak eta ikuskizuna

Erakusketaz gain, gazteei zuzendutako tailerrak eta publiko zabalentzako ikuskizuna ere egongo dira aukeran.

Tailerrak erakusketari loturik daude. Behin panela irakurritakoan, gazteek bi aukera edukiko dituzte: 3-6 urte bitartekoentzat marrazketa txokoa antolatu dute; eta 6-10 urte bitartekoentzat, irakurketa txokoa.

Bi guneak Andersen en lanarekin zuzenean erlazionaturik daude. Izan ere, marrazketa txokoan autore ezagunaren ipuinetako pertsonaien marrazkiak koloreztatzeak aukera edukiko dute. Irakurketa txokoan, berriz, Andersen en ipuinak osotasunean irakurri eta haiei buruzko fitxa didaktikoak, denbora pasak eta abar aurkituko dituzte.

Azkenik, apirilaren 26an Zabilen 19:00etan Mikelazulo Kultur Elkartean ikuskizun berria eskainiko du: Hitzontzia: testu laborategia. Ikuskizun horren bidez, testu ezagunen irakurketa dramatizatuak eskaintzen dituzte. Testuak argitara atera eta publikoren aurrean haiekin esperimentatzea da helburua, esan dute.